

Primi Erostarbe Etxeberria



Udalerrria: Oñati (Gipuzkoa)

Jaiotze-data: 1907-02-24

Heriotza data: 1995-12-06

Lanbidea: Panderojolea eta irrintzilaria

Primi Erostarbe Etxeberria (Oñati, Gipuzkoa, 1907ko otsailaren 24a - Donostia, Gipuzkoa, 1995eko abenduaren 6a) Euskal Herriko emakume panderojole eta irrintzilaririk ezagunenetako bat izan zen

Oñatiko Araotz auzoan jaioa. Bere gurasoengandik ikasi zuen panderoa jotzen. Plazaz plaza San Fermin Txiki egunean, Pasaian, hasi zen. Irrintzilaria ere izan zen, astoarekin herri batetik bestera mendiz joaten zen eta, bakardade horretan ikasi omen zuen irrintziak botatzen. Bazuen irrintzi berezi bat, "berde" xamarra. Eta horregatik "amona berde" deitzen omen zioten. Gerra zibil ostetik 80ko hamarkada arte Valentín Aldalurrekin batera plazaz plaza ibili zen. Goizaldi eta Argia dantza taldeekin ere 20 urtez aritu zen. Euskal Herri osoan. Europako herrialde batzuetan ere jo zuen panderoa: Suitza, Alemania, Austria.

1982ko San Martin egunean jo zuen azken aldiz jendaurrean.

Iturria: [wikipedia](#)

